



Izenburua: **Suaren froga**

Egilea: **Patri Urkizu**

Bilduma: Narratiba, 133

ISBN: 978-84-9109-726-6

Salneurria: 18,00 €

Egunon denoi,

Eta milesker etortzeagatik goiz honetan EREINEK plazaratutako nire nobela berriaren aurkezpenera.

Lehen-lehenik esker ona adierazi behar diot argitaletxeari nire hirugarren lan hau plazaratzeagatik. Aipa ditzadan. Lehena *Joan Perez de Lazarraga, Diane & Koplak* (2004) edizioaren prestaketa izan zen eskuzkribuaren faksimilea eta guzti, bigarrena *Balada zaharrez* (2005) entseiua eta gaurko hau Ereinek plazaratzen didan hirugarrena duzue.

Eskerrak bereziki Inazio Mujikari nire idazkiari eman dion orrazkeragatik, zuzendu eta egokitu dituelako nire hainbat idazkera eta hautatze duda-mudazkoak. Frantsesek dioten eran egin didalako *la toilette du texte*.

Parisen nengoelarik liburu denda batean duela urte batzuek, *La Procure* zela uested dut, begi aurrean topatu nuen hainbestetan entzundako eta aipatutako Marcel Bataillon-en *Erasme et L'Espagne. Recherche sur la vie spirituelle du XVI siècle*, tesia 1937an argitaratua eta Droz argitaletxeak Ginebran 1998an berrargitaratua. Liburu benetan funtsezkoa ezagutzeko XVI. mendeko izpirituaren bizitza eta erasmismoaren eragina Espainian. Eta honen irakurketan murgildurik nengoela begiak hautatu zidan nire nobelaren süjeta, zuberotarrek dioten bezala, ezezaguna nuen Joan Lopez de Zerain. Honen bizitzaren eta obraren albiste gehiago jakitea interesgarri iruditu zitzaidan. Banuen gaia.

Bataillon-en obran irakurri nuen zeraindarra Granadako Inkisizioak erre zuela 1530ean dotrina berriaren heresiak kutsatutako hiru liburuxka idazteagatik. Kuriositateak, jakin minak bultzatu ninduen, bada, garaian sakontzera, zeraindarrari buruzko albiste eta zehaztasun gehiago bilatzera. Eta ediren nuen Angela Selke de Sanchez etorki judeogermanikoa zeukan hispanistak Bordelen *Bulletin Hispanique* deitu errebista zientifikoan 1960an plazaratutako artikulu interesgarri bat: *Vida y muerte de Juan López de Celain, alumbrado vizcaino*. Honek abiatu ninduen halaber Madridede *Archivo Histórico Nacional*-a (leg. 2.064, nº 1) bisitatzera, bertan topatu nuelarik Inkisizioak Joanes Lopez Zeraingoari egindako itaunketa krudel eta latzaren lekukotasunak.

Banituena bi data zehatz. 1488 a Zerainen jaio zenekoa eta 1530 a Granadan hil zutenekoa eta pairatu zuen prozesuaren zati bat.. Baina bitarte hori, XV. mendetik XVI.era igarotze hori nola aztertu? Zertaz eta nola osatu, nobela historiko bat idatzi nahi banuen, eta ez entseiu bat? Hutsuneak betetzearren lagungarri izan zitzaidan, noski, Bataillonon liburua bera eta berrirakurtzen hasi nintzen Erasmoren obra eta garaiko historia argi ziezazkidaketen lanak.

Horrela baliatu naiz frantsesez Claude Blum eta bestek argitaratuaz (*Erasme, Eloge de la folie, Adages, Coloques, Réflexions sur l'art de l'éducation, la religion, la guerre, la philosophie. Correspondance*. R. Laffont, Paris 1992), eta gaztelaniaz, bereziki garaian moldatu hainbat itzulpenez. Kontutan hartu behar da ere Erasmoren zabalkunderik handiena Espainian Miguel de Eguía, Alcalá de Henaresen inprimatzailea zena, Frantzisko Jaso Xabierrekoaren ahaide nafarra izan zela. Halaber, hor neukan 1956an Aguilar argitaletxeak Lorenzo Riber akademikoaren eskutik plazaratu zuen *Erasmus. Obras escogidas*, edizioa, non beste liburu askoren artean irakur daitezkeen Erasmok idatzi eta jaso zituen gutunak. Hartzaile eta igorleen artean Alfonso Valdés, Juan Valdés, Juan Luis Vives, Juan de Vergara, Alfonso Virués, Alfonso Fonseca espainolak hala nola Pedro Bembo, Tomas Moro, Juan Ecolampadio, Ulrico Zuinglio...eta luzetsi daitekeen jakintsu eta politiko multzoaren zerrenda luzea.

Euskarazko itzulpenez ere baliatu naiz, adibidez, Julen Kalzadak apaiz busturiarrak Klasikoen sailean plazaratu zuen *Eromenaren laudorioa*-z. (EHU, 1994) eta Patxi Ezkiaga poeta eta nobelagileak argitaratu *Otorduak* (EHU, 2006), itzulpen benetan eredugarri eta ederrez.

Baliagarri ere izan zait beste entseiu anitzen artean Johan Huizinga Behe Erdi Aroaz eta Errenazimenduaz aditu eta saiogile handiaren (*Erdi Aroko udazkena*, 1919; *Homo ludens*, 1939) *Erasmus*, entseiu, Farrán y Mayoralek ingelesenetik itzulia (Ulises, Sevilla 2014).

Errenazimenduko garai honetaz idatzitako zenbait eleberri berrirakurri nituen, adibidez, Marguerite Yourcenarren *L'oeuvre au noir* (1968), *Opus Nigrum* gaztelaniazko bertsioan, Brugge-n girotua, Zénon medikuaren bizitza eta heriotzaz, zeina idazteko Vatikanoko artxiboetan barrena aztertzen aritu zen nolakoak zitezkeen kartzelazainen eta inkisidoreen hizkerak eta solasak. André Delvaux zinema zuzendariak 1988an Gian Maria Volonté, Anna Karina eta beste zenbaitekin pantailaratu zuena.

Bestalde, hortxe nuen ere Miguel Delibesek idatzitako *El hereje* (1998), non giza harremanen konplexutasuna argi eta garbi adierazten duen, hala nola tolerantziaren eta kontzientzia askatasunaren aldeko defentsa aldarrikatzen.

Sakontzean XVI. mendeko lehen herenean topo egin nuen zenbait gizon eta emakume benetan interesgarri direnak, hala nola Inazio Loiolakoa, parte hartu zuena Nafarroako konkista deituan, Juan Sebastian Elkano getariarra munduari bira eman zion lehena, Miguel de Eguia aipatu lizarratarra, zeinak Arnao Guillen de Brocaren alaba Mariarekin ezkondu eta inprimategi munduan sartuta lortu zituen saltzeko monopolioak, nola Gurutzadako Bula, Nebrijaren Gramática, eta beste, Erasmoren zabaltzaile handiena izan zelarik, eta ondorioz kartzela ere pairatu behar izan zuelarik.

Irudimenak bestalde eramaten gaitu Iparraldean izan zitzakeen balizko harremanetan pulunpatzera. Eta hor agertzen zaizkigu Bertrand Lehet, Baionako apezpikua, Bernat Etxepare Zaro eta Eiheralarreko apaiz izendatu zuena 1511n, Joanes Ibarrola 1520an *La coutume de la Soule* idatzi eta zuzendu zuena, Bernard Lehet erregeren abokatua, Etxepareren adiskidea eta mezenas, Okzitaniako Tolosan irakasle izan zena...

Ezaguna da hirien kalitateaz mintzo zen bertsoa: *Paris pour voir, / Lyon pour avoir, Bordeaux pour boir, Toulouse pour apprendre*. Demagun, beraz, Okzitaniako Tolosan lagun euskaldun batzuek aritu zela ikasten.

Gorago joaz, bada, Parisen garaikide zituen François Rabelais, Clement Marot, eta Frantzisko de Vitoria beste askoren artean. Eta oraindik goraxeago iparreki alderantz Bruggen, non Luis Vivesekin topa zezakeen, hau Pedro de Agirre merkataria euskaldun aberatsaren etxe batean bizi izan zenez... Hala nola handik ere zebiltzan Desiderio Erasmo eta Hernando Colombo, Kristobalen semea, liburu biltzaile amorratua.

Itzulitakoan Espainiara Karlos V.aren gortean, jakina da ere kanta zaharraren leloa, *Karlos Kintoren baratzan / euskaldunak ezpatadantzan...*

Medina de Rioseco-n elkartu zen Don Fadrike Enriquez Gaztela eta Granadako Almirante nagusiarekin, Nafarroako konkistatzailearekin, zahartzaroan erlijiorako jaiduraz kutsatu bide zena, eta honek zeraindarraren esku utzi zuen izan zedin *Desertuko Tronpeta* eta hamabi apostolu aurki zitzaizen Erasmorengandik jasotako dotrina berriak zabal zitezzen Gaztela aldean. Baina, tamalez laster porrota egin zuen egitasmoak, eta Joanes Zeraindarra Granada aldera abiatu zen moroak konbertitzera.

Hemen Frai Pedro Ramiro de Alba artzapezpikuaren babespean delarik ongi doakio bizimodua, Errege kaperako kapelau baita, eta aditua denez hizkuntzatan *Arte y vocabulario de la lengua arábica* idazten du zabal dadin misiolarien artean hobeto bete dezaten euren eginkizuna.

Tamalez ez dut aurkitu inon, ez eta ere dotrina berria irasten duten liburuxkak.

Garaiak gero eta estuago, zorrotzago eta gaiztoago ziren eta azkenean Inkisizioaren atzaparretan erori zen, apaizen eta fraideen arteko inbidiak eta salaketak zirela medio.

Eta ez dizuet dena kontatuko. Xehetasun ugari baitago liburuan barrena, barreiatu, non txertatu eta itzuli izan ditudan hedatzen ziren mirariak, garaiko ipuin eta poema zenbait, bulak, inkisidoreen aginduak, debekuak, gutunak, liburuetakoz zati hautatuak, kartzelako ihesaldiak eta beste... irudimenari leku eginez.

Azaleko irudiari dagokionez Prado Museoan Madrident dagoen Pedro Berrugueteren (Paredes de la Nava 1450 – Ávila 1504) bi koadroren aukeran dudak izan ditugu, biak liburu erreketarekin zerikusia dutenak baitira, azkenean bietaz baliatu izan garelarik. Batek titulua ematen dio nobelari, eta besteak detaile bat markatuz, Santo Domingo eta albigenseak daukanak titulu bezala, azaleko irudia.

Eta bukatzeko hasierako aipuei buruz bi hitz. *Monachus non est pietas*, zioen bere *Adagia*-etan, Errefrau zaharren bilduman Erasmok, gaztelaniaz Iruñean 1596an argitaratu *Refranes y Sentencias*-en gaztelaniaz, *el vestido al ermitaño no le hace*, ezagunago *el hábito no hace al monje* dena eta euskaraz *jazkerek parrua egite ez du*. Esango nuke oraindik Erasmoren eragina euskal atsotizetan merezi duen ikerketa egin gabe dagoela. Bigarrena Miguel Servet zientzi gizon eta teologoaren aipua da. *Larria iruditzen zait gizon bat hiltzea errorean dagoela uste izateagatik, edo eskrituren iruzkin baten xehetasun batengatik, dakigunean hautatuenak ere iritzi okerrean eror daiztekeela*. Honen ideiak Trinitate Sainduaz eta odolaren zirkulazioaz bai katolikoek bai eta erreformistek gaitzetsi zituzten eta Ginebran, non Calvinoren eragina handia baitzen, erre zuten 1553an, hau da, Joan Lopez Zeraingoa baino 23 urte geroago.

Ikerle batzuen iritzi Erasmok, Loiola eta Lutero estremistekin konparatuz tolerantzia eta moderazioaren eredu litzateke, bera izan ez balitz ez Cervantes ez eta Kixotea ez lirakeelarik. Eta zeraindarra haren jarraitzailetarik bat legez kontsideratu dugu hemen.

Azken finean denboran eta espazioan bidaiatzera gonbidatzen dut irakurlea, honela ere zerbait ikas dezakegulakoan.

Berriro diotsuet, bada. Milesker etorri zareten guztioi eta galderaren bat egin nahi baduzue prest naukatzue erantzuteko.

Patri Urkizu (Lezo 1946)

Filologia Erromanikoan lizentziatu zen Salamancako Unibertsitatean (1970), non, besteak beste, Fernando Lázaro Carreter eta Koldo Mitxelena izan zituen irakasle. Azken honek zuzenduta, Euskal Filologian doktore gradua lortu zuen *Pierre d'Urteren hiztegia. Londres 1715* tesiarekin (1986). Euskara eta euskal literaturaren irakasle izan da Errenteriako eta Donostiako Institutuetan lehenik, EUTGn, Bordeaux III Michel de Montaignen gero, eta Madrileko UNEDen. Euskal teatroaz eta bertsozaz saiakera ugari idatzi ditu.

Sorkuntzan ere aritu da, nahiz poesian nahiz narratiban. Narrazio liburuen artean, batzuk: *Sekulorun sekulotan* (1975), *Nola Kursaal berria suntsitu zen* (1984), *Etsipenez* (1984), *Zoazte hemendik* (1995), *Idiakez kasuaren kronika* (2021), *Kordobako desterrutik* (2021), eta *Joan Sebastian Elcano, Primus circumdedisti me* (2021)... Azken hirurok www.patriurkizu.eus webgunean irakur daitezke.